

Basajaunak burugogorrak eta tentelak\*izanik  
tentelak-izanik

baserritarrok baino aurrerago bizi ei ziran.

Lurra lantzen ei ekien eta ogia egiten;

burdina lantzen ei ekien eta burdinezko tresnak\*erabilten.

Baserritarrok, ostera, ez; baserritarrok ikasi gura eben  
baina hareek irakatsi nahi ez, isilpean gorde nahi dana.

Samartintxok, mutil argia ta bizkorra zanez,  
basajaun kokoloei\*sorotz eginik ikusi egin eutsen asko  
eta eraso\*beste asko:

Behin,\*gari garaunak ostu eutsezan hazitarako;  
beste behin, errota-harriaren ardatza zelako zur edo egurraz  
egin behar zan eraso...

Basajaunak amorruz bete... Bainam Samartintxo prest  
beste bihurkeria\*bat ere egiteko.

Hona hemen, bada, beste bihurkeria bat.

Behinola,  
ola bat egin ei eban Samartintxok burdina lantzeko.

—DINGI-DANGA, DINGI-DANGA... hasi zan burdina joten.

Baina alperrik! Burutik egin beharrean ebilen

burdin zatiak alkartu ezinik.

Makina bat\*alperreko mailukada...!

Mendi aldetik etorren TIRIKI-TIKI-TAUKA... mailu hotsa, ostera,  
basajaunen oletako\*mailu hotsa, ez zan alperreko...

—Zelan lortzen ete joek <sup>dobe</sup> denganiño\*horreek

nik lortu ezin dodan hau! —inoan berekautan,

mendi alderantza begiraturik.



# tiriki-tiki tauka



Honetan,

eskeko bat urreratu jakon eta eskua luzaturik

—Limosna bat Jainkoaren!\*—esan eutsan.

—Limosna bat? —erantzun eutsan— *lana emongo deuat*  
*gehiago eskean ibili ez haisten.* <sup>zaitean</sup> Bainam lehenago  
errekadu bat egin behar <sup>deustaz</sup> deustak.

—Zein?

—Basajaunakana joan  
eta Samartintxok burdina lantzen ikasi dabela esanez  
burdin zatiak zelan alkartzen diran eraso.

Joan zan, bada, eskekoa basajaunen mendira  
ta ba dinotso batek

—Zer? Barri onak beheko aldean?

—Beheko aldean aurrera joazak <sup>dobz</sup> gauzak.

—Aurrera, zer?

—Ba... soloetan gari ereitea, errötetan gari eihotea...

—Baita Samartintxok asmatu daben beste zera ere.

—Asmatu, zer?

—Ba... burdina lantzea.

—Burdina lantzea? Ja, ja, ja!

—Ez, buztin\*-ura bota ez bajeutsok <sup>bedeutso</sup> burdin zatiei!

—Bota, ez jeutsak <sup>deutszo</sup> egin, baina botako jeutsak <sup>deutsao</sup> —esan

eta apatx-urtika\*joan zan herrira

eta entzundakoa berehala esan eutsan Samartintxo-ri.

Honelan ikasi eban bada, Samartintxok, burdin zatiak alkartzen.

Aurrerantzean Euskalerrian ez zan burdin tresna faltariak izan.

\* tentela = corto, tonto, necio  
\* tresna = utensilio, herramienta  
\* kokolo = bobo, bobalicón, simple

\* eraso = esan-eraso, esan eragin  
\* behin = un dia, en cierta ocasión

\* bihurkeria = travesura  
\* makina bat! = ¡cuántas...!

\* ola = taller, ferrería  
\* denganiño = demonio, demonbre

\* berekautan = bere barruan  
\* Jainkoaren! = ¡por Dios!

\* buztin = arcilla  
\* apatx urtika = echando chispas